

GAZTE NAIZ

ASTETIK ASTERA


Asten huntan berean ere ilargira beste misilo bat iritsarazi da. In-
ta, herriz aipatu dira kosmorako bidean egiten ari geran aurre-
rapenak.

Aurrerapen hauek ukatzea edo zalantza jartzea ez litzake bidez-
ko izango. Batzuk, halere, gertaera hauen ondorioz agertzen duten
konfiantza osoa, itsutasuna baizik ez zait iruditzen. Astronomiari
buruz ez gehiegi eskolatirik, gertakizunen ziurtasuna eta irudime-
nezko ziurkeria ez bide dituzte ongi berezten.

Bereki diotenez, Kosmorako bidean lehenengo urratsak eginak di-
ra; Gagarine eta bere ondokoak izarren artean ibilli dirala sinis
liteke; eta aurrerakoan gauza "ziurra" zaie, hitz batez, gizona beste
mundutara joango dela. Edo, Filosofoaren aldetik karriago dana:
beste bizidunak eta gizakirik ere laister arkituko dugula ziurtat
hartzen.

Nun eta nola, ordea?

Astronomiariek diotenez, Lurraz kampo, Artizarren eta Marten
izan ditek bizidunak; bainan ez gainerantzeko planetetan. Merku-
rion, esate baterako, beregi dago eguzkiak argitzen duen alderdian
(300º bat); eta alderdi ilunean, aldiz hotzegi. Jupiter, Saturno Nep-
tuno eta Plutonen hotzegi da, eguzkitik, (edo "eguzkiagandik" as-
paldiko euskaldunen modura mintzatu nahi badugu) urruneg
diralako. Astronomiarien ustez Marten eta Artizarren bizidunak ez
badago, Eguzki-Sisteman Lurretik kampo bizirik ez dagoela esan
ditek.



Alde huntatik, Mariner II eta Mariner IV-garrenen bidaiek gizu-
tiz garrantzitsuak izan dirala uste dut. Artizarren eta Marteren on-
dora joan diralako.

Eta zer jakinarazi digute misilo horiek, Mariner IV-garrenak bat
ez ere? Marten bederen (eta Marte zan seguruen, omen) bizidunen
aztarnarik ez dagoela. Zail zirudien, besterengatik ere, planeta ho-
rietan beretan ere bizirik izatea. Orain eskierkiago esan bide ditek
gure Eguzki-Sisteman bizidunak ez dagoela Lurretik at. Eta bizidu-
nik sor dedin egokitasunik ez badago, gizonak bere gainean irau
dezan ere, aski lan.

Hau berri ikaragarria da: Mariner dalakoek gizonaren itxaropen
eta amets zahar eta sakon bat ehortzi dute.

Nola egizta, ordea?

Hunat erantzuna: baikorrek besterik uste izan arren, gizonak ez
du ori sekulan egiztatuko, Artizarren eta Marten itxaropena galdu
baiz. Zergatik?

Misilo batek gaur, ordubetan hamar mila kilometro Marte-ren
"iges" ari irabazi ezker, hamar edo hamar mila hilla bete behar ditu
Marteraifino. Hamar mila hilla bete ez dira minutu bat! Nola joan gizon
bat? Eta zer egin zuloz betetako bigarren ilargi ezker, hil eta
hotz hartan?

Eman dezagun, orain, hamar mila kilometro ordutan ez bainan
hamar milioi kilometro egin ditugula noizpait ordubetean. Haha!
Ila izugarri hortan halere (c/100) zortzi ordutik beharko genituzke Mar-
tera joateko. Zenbat, ordea, beste planeta-sistema batera iristeko?

Gugandik urbillena Zentauro'ko Alfa izarra dugu: iru urte argi
gutxi gora-behara. Eman dezagun planeta-sistema bat duela (hau
nehork es daki). Zenbat denbora beharko genuke haratzeko?

Hamar milioi kilometro horiek ordubetean egin ezker (hau da:
gaur baino mila bat aldiz azkarrago joan ezker), hirurhun urte
beharko genituzke!! Eta Vega'ra joateko (gure "hauzoko" beste bat,
jakina), bi mila ta bostgehun urte!! Gagarine eta Colon ez dira
alderagarri; Zentauro'ko Alfa ez da Amerika. Bi maila dira. Hauek
ditugu, ordea, lehenengo urratsak gure galaxian...

Zertarako alpa beste galaxiak? Habaila hortan, berrehun bat
milioi urte bidaia beharko genuke Andromeda'ra joateko...

Ziurkeria guzien kontra esan behar dugu: gizonak ez dauka bere
bakardadea uzterik. Gartzelan bezin mugatuta dago kosmoan.

Eta jakintzari buruz ere, ez dirudi, ziurzarrez, Lurretik at bere
ikeri tzapenak atera ahalko dituenik.

RENE GOIENETXE

Sao Paulo edo Donostia DIRUA

Sarritan berri bat entzuterakoan galdetzen degu.

Nun gertatu da ori?

Ameriketan!

Bai, bai, ori etzala emengo kontua iruditzen zitzaidan.

Gaur esatera nijoakizuen au Sao Paulo'ko urian gertatzen
dana da bañan nik esango nuke Ernani'n, Tolosa'n ditekena
dala.

Ona emen elebkeri bat bezela irakurri detana. Sao Pau-
lo'ko ajenzi batek, era berri bat sortu du, andre-gai ta senar-
gaia arkitzeko.

Parke edo jardin bat alkilatu du eta baratz edor ortako
alkietan, gizasemek esertzen dira astelen, asteazken eta osti-
raletan. Emakumeak berriz batera ta bestera ibiltzen omen
dira.

Ondo begiratu die, jakina nolako zankoak, gorpuzkera
ta abar ditun. Astearte, ostegun eta larunbatean emakumeak
patxaran eta gizonak arrastaka dituztela.

Orrela alkar ezagutu ta ajenzi ortara egiten dituzte nai
diran galderak.

Benetan gauz arrigarria bañan au Brasil'en bakarrik ez da
gertatzen. Jakina ez dago orrelako etxerik bañan bai alki, jard-
in, kafeteri ta abar alkarrri begira egoteko.


Lenengo aldiz irakurri nunean, auxe esan nun: Au, den
au, zozkeria.

Geroago nereki nion: nere errin auxe bera gertatzen
den. Zenbat aldiz alki batean eseri ta begira egoten gaitun, eta
noski beste batzuek guri bgira.

Makiñabat ordu-galtze mostradore baten aurrean zigarroa
ezpañetan eta kea sapaira botiaz. Askoentzat ordu-galduak di-
ra, gaizki esan det, lanean ari bai dira, saria ta kañaberakin ta
noski gizonak pinpili-pauxak bezela saretan erortzen dira ta
alaxe arkitzen dute bere ametsetako erregin-gaia.

Sao Paulo edo Donostian berdiñ-berdiña.

MARI-BELTZ



IDAZKITZA

Amaya Z. andereñoak ez ditu ulertu "Sinesmena" artikularen
zenbait gauza.

"Nere ustez —dio— postura bat konprenditzeko, postura orretan
jarri bear da. Nik ezin det naita ere atean posturan jarri eta zuk
ez ba dezu konprendituko ere esango dizut nere fedearn ziurta-
sua osoan nagola, eta oso ulergaitzak dira neretat sinesten ez
dutenak. Zuri naska emango ba dizut ere ez dut konprenditzen
Jaungoikoa sinesten ez duana".

Amaia:

Lehendabizi esango dizut ez didazula naska ematen pena balzik.
Eskutitza esaten duzunagatik zure personaren ideia bat besterik ez
dit egiten. Eta ikusten dut zein zaila izango zaidaten erantzutea.
Sinesmena egunero lortu behar da, egunero sendotu. Neri etzait
hain errea iruditzen sinestea, bainan nahi dut sinestu, behar dut
gainera, eta sinesten dut ezin lo eginezko mila gau ikaragarritan,
neure buruari... sinesten dut... sinesten dut esan diotelako...

Sinestea ezin dugu tradizio bat bezela hartu... Oroitzen naiz, ze-
lan zu bezelako neska batek bein esan zidan:

—Nik bereala konbenzituko nuke ateo bat.
Galdetu zailoia ia norik egin duen itxasoa. Bea bakarrik? Nah
eta nahiez sinestu beharko du gu baino haundiagoa dan Ba-
tek, egin dala. Deituzio Jaungoikoa edo beste izen bat ber-
din zait... bainan gure gain. Bat dago gu egin gaituna".

Ark konprenditzen zuen Jaungoikoa, Bera bakarrik egin zeza-
keala. Itxasoa bera bakarrik egin zitekeanik... Pentsatu ere ez.
Nik egia esan, ez dut ezer konprenditzen, lehendabizikoa nahi dut
sinestu. Gure gain Beste bat dagola ona dena eta Beagan sinesten
saiatzen diraneri lagunduko diena Sinestea behar beharrezkoa zaif.

Bainan konprenditzen ditut ateoak. Bai. Zuretzat ez!, bainan
beste askorentzat ain zailak eta nekeak diren horietako gau batean
gera galdu dute, Jaungoikoa ez die eman fedearn grazia. Edo ez
dute arkitu sinesten duten ejipluman. Gogua falta zaie... Ainbeste
gauza izan liteke... Nola ez konprentitu gizona bide legunetik
joatea...?

Konprenditu eta arrespetatu egin behar ditugu horiek... eta gu-
ziek.

Esaten duzu zure fedearn ziurtasun osoa dezula... Ongi. Ez naiz
ni izango... San Pablor erantzun digu... "Erruki ni sinisten dut
esatean sinesmen oien ziurtasunetan sentitzen ba naiz. Orduan fe-
dea galtzeko arriskuan nago". (San Pablo Cor. X. 12).

Kontuz ba Amaia. Beste bat hart.

Ona emen bazter guziak naazten
dituan itza. Bera da zeinbatentzako
elburu bakarra. Beragaitik sortzen
dira itxillu guziak.

Langile ta nagusiak etengabeko
burruka daramakite, leenak bear
ña ematen ez zaitelako bigarre-
nak geiago nai dutelako, Gaur nola
nai ez dut egoera au ikutzeko as-
morik, gazte diru zaleak ditut ere
gogoan.

Bai, gazteak ere, egin nai dituz-
ten gauza guziak osatzeko, dirua
bearrezkoa dute, leku guzietan es-
katuko bai diote. Nola nai ez da
bere eskuetan balio geiena izaten
duana. Gazteak ez diranak dira gei-
go begiraten diotenak.

Gazteak maiz beren biotzaren
esanari jarraituak diruaren bearrik
gabe egiten dituzte zenbait gauz.
Bizitzeko bearrezkoa danez, beren
lantokian eginkizunak bete ondo-
ren borondate onenez beste egin
bear batzuetan aritzen dira.

Euskal gaietan ez da arrigarria
onelako gazteak arkitzea, gutxi
izango dira bearbada bañan arki-
tzen dira tarteka-tarteka, ta gure
esker ona merezi dute.

Beste asko beren lantokietan bu-
ka ondoren, kaleetan barrena ibil-
tzen dira; era onetan ez dute noski
ezzer irabaziko, bañan arro ager-
tzen dira lanik ere ez dutelako egi-
ten. Aueri, ezer egiten ez duten
aueri zerbait ekiteko eskatzen ba
zaiete, leenengo erantzuna astirik
ez daukatela esango da, gero dirua
tartean dala nabaitzen ba dute, or-
duan gauzak aldatuko dira.

Ustean lanik ezin egin dala uste
dutenak, ba dira. Aste egun guziak
eginkizunen batean bete, ta kanpo-
tik begira daudenari galdera bat
datorkie burura, ze egiten ote du-
te oiek irabazten duten diru guzi-
rekin?, ez dakitena da bearbada be-
ren sakeletik jarri bearko dutela
maiz.

Euskal arazoetan asko ta asko
dira erriari maitsunik aundiña ba
luteke bezela agertzen diranak, ba-
ñan sosik ez baldin dala, pauso bat
bera ematen ez dutenak. Auek ko-
merziante utsak dira, ta izen au
eman bear zaioeta, ta ez ainbat ga-
rrantzi duten izateak. Inguruko eus-
kal zaletasunaz aprobetxuatuz, be-
ren sakela betezen ari diranak oiek
ez dira jatorrak, edo bai, gaur egin
itz au erabiltzen dan era ikusiaz
jatorrak dirala esan dezakegu.

Onelako ta alako, oiek dituk eus-
kaldunak, oiek. Maiz entzen dan
gauza da auxe, ta orduan galdera
batzuek bururartzen zaikit: Ze za-
krifizio dakarke orrela izateak? Ez
al da izango ingurutan dituzten eus-
kaldunataz baiatzen dirala? Orrela
azateak dirua dakarkitela?

Gaur egun (ainbesteraño iritxi ge-
ra) benetako bat sortzen dan ga-
raian, ain gutxi sortuzten diralako
edo, bearbezela ikusi bearrean, aka-
tsak atera besterik ez dizkiogu egi-
ten. Zortzi mila gezur amatuko
dira, diranak eta ez diranak naaz-
tuko dira, bañan orrelako bat ez da
onartuko, ez, eredu txarra litzake
noski.

IKARAN

IRAKI